

UMANDI IKASTOLA  
F.J. Landaburu 9  
01010 Gasteiz

**ESKOLA-JANTOKIEN FUNTZIONAMENDURAKO JARRAIBIDEAK**  
**2011/2012 IKASTURTETIK AURRERA**

Ez dago aldaketrik ondorengo ataletan:

1.- Ikasturte osoan, astean, gutxienez 4 egunetan jantoki-zerbitzua erabiltzen duena **ohiko jankidetzat** hartuko da.

2.- Gainontzeko jankideak **ez-ohiko jankideak** izango dira, baldin eta aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte.

**Bi eta hiru** urteko ikasleak ohiko jankideak izan beharko dira talde hauetan egun solteko jankideak onartuko ez baitira.

**3.- Finantziazioa**

Hona jantokiaren gutzizko zerbitzuagatik aplikatu beharreko jankideen kuotak:

|   | EURO/MENU |
|---|-----------|
| a) Ikaslea, ohiko jankidea:                           | 4,00 €    |
| b) Ikaslea, ohiko jankidea, garraioko eskubidearekin: | 2,80 €    |
| c) Ikaslea, ohiko ez den jankidea:                    | 4,60 €    |

Ikasturte osoko %80 egun betetzen ez dituzten ohiko jankideei kuota aldaketa ezarriko zaie eta ez-ohiko jankide bezala joko dira atzeratutako aldea ordaindu beharko dutelarik.

Aldaketak daude hurrengo ataletan:

**4.- Kuotak itzultzea**

Jantokiko kuotaren zati bat itzuliko da honako kasu hauetan:

- a) Ikasle-talde bat ez denean jantokira joaten aurrez onartutako eta programatutako jarduera osagarriren batean parte hartu duelako.
- b) Jankidea ez bada astebetetz edo aste gehiagoz jarraian jantokira joan behar, beti ere, gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada.

Bi kasu horietan itzuli beharreko zenbatekoa kasu bakoitzean ikasleak ordaindu beharreko kuotaren % 50 izango da.

- c) Eskola jantokiak funtzionatzen ez duenean, itzulketak, hala badagokio, une horretan indarrean dauden Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzak emandako jarraibideen arabera egingo dira.